| 629 | Bestelako zerbitzuak Otros servicios | | 1.550.000 | |
| 6290 | Lokomozioa eta egonaldi-gastuak <i>Locomoción y gastos de estancia</i> | | 1.200.000 | |
| 1 | Bidaia-gastuak. <i>Gastos de viaje.</i> | 1.200.000 | | |
| 6292 | Komunikazio telefonikoak, informatikoak, telematikoak eta beste batzuk <i>Comunicaciones telefónicas, informáticas, telemáticas y otras</i> | | 350.000 | |
| 1 | Komunikazioak. <i>Comunicaciones.</i> | 350.000 | | |
| 3. | TRIBUTUAK TRIBUTOS | | | 70.000 |
| 631 | Bestelako tributuak Otros tributos | | 70.000 | |
| III. | GASTU FINANTZARIOAK GASTOS FINANCIEROS | | | 50.000 |
| 2. | HIRUGARRENEKIKO ZORRENAK POR DEUDAS CON TERCEROS | | | 50.000 |
| 669 | Bestelako gastu finantzarioak Otros gastos financieros | | 50.000 | |
| GASTUAK GUZTIRA TOTAL GASTOS | | | | 98.246.345 |

Euro / Euros

| DIRU-SARRERAK INGRESOS | | PARTIDA PARTIDA | KONTUA CUENTA | EPIGRAFEA EPIGRAFE |
|---------------------------|--|--------------------|------------------|-----------------------|
| I. | NEGOZIO-ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA IMPORTE NETO DE LA CIFRA DE NEGOCIOS | | | 9.888.988 |
| 1. | SALMENTAK VENTAS | | | 8.503.988 |
| 701 | Produktu bukatuen salmentak Ventas de productos terminados | | 8.503.988 | |
| 7011 | Produktu bukatuen salmentak beste batzuei <i>Ventas de productos terminados a otros</i> | | 8.503.988 | |
| 1 | Salmentak, produktu bukatuenak, beste batzuei. <i>Ventas de productos terminados a otros.</i> | 8.503.988 | | |
| 2. | ZERBITZU-EMATEAK PRESTACIONES DE SERVICIOS | | | 1.385.000 |
| 705 | Zerbitzu-emateak eta errentamenduak Prestaciones de servicios y arrendamientos | | 1.385.000 | |
| 7051 | Zerbitzu-emateak eta errentamenduak beste batzuei <i>Prestaciones de servicios y arrendamientos a otros</i> | | 1.385.000 | |
| 1 | Zerbitzu-prestazioak eta errentamenduak beste batzuei. <i>Prestaciones de servicios y arrendamientos a otros.</i> | 1.385.000 | | |
| II. | USTIAPENENKO BESTELAKO DIRU-SARRERAK OTROS INGRESOS DE EXPLOTACIÓN | | | 2.384.853 |
| 759 | Hainbat zerbitzuren sarrerak Ingresos por servicios diversos | | 2.384.853 | |
| 7590 | Hainbat zerbitzuren sarrerak. EAEko sektore publikoa <i>Ingresos por servicios diversos. Sector Público de la CAE</i> | | 2.384.853 | |

Euro / Euros

| DIRU-SARRERAK INGRESOS | | PARTIDA PARTIDA | KONTUA CUENTA | EPIGRAFEA EPIGRAFE |
|---|---|----------------------------|--------------------------|-------------------------------|
| 1 | Zerbitzu integrala. <i>Servicio integral.</i> | 2.384.853 | | |
| IV. USTIAPENENKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE EXPLOTACIÓN | | | | 85.902.504 |
| 740 | Ustiapenerako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak Subvenciones, donaciones y legados a la explotación | | 85.902.504 | |
| 7400 | Ustiapenerako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak. EAeko sektore publikoa <i>Subvenciones, donaciones y legados a la explotación. Sector Público de la CAE</i> | | 85.902.504 | |
| 1 | Ustiapen gastuak finantzatzeko, Euskal Irrati Telebistatik jasoko direnak. <i>A recibir de Euskal Irrati Telebista, para financiar gastos de explotación.</i> | 85.902.504 | | |
| V. SARRERA FINANTZARIOAK INGRESOS FINANCIEROS | | | | 70.000 |
| 2. | BALORE NEGOZIAGARRI ETA BESTELAKO FINANTZA-TRESNENAK <i>DE VALORES NEGOCIABLES Y OTROS INSTRUMENTOS FINANCIEROS</i> | | | 70.000 |
| 769 | Bestelako sarrera finantzarioak Otros ingresos financieros | | 70.000 | |
| 7690 | Interes finantzarioak <i>Intereses financieros</i> | | 70.000 | |
| DIRU-SARRERAK GUZTIRA TOTAL INGRESOS | | | | 98.246.345 |



1. ERAKUNDEAREN JARDUERA NAGUSIAK

Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 19ko 157/1982 Dekretua, EUSKAL TELEBISTA TELEVISION VASCA, SA sozietate anonimo publikoaren sorrerari buruz.

ETB, SAren sozietate-helburua honakoa da:

a). Irudiak eta soinuak aldi berean, uhinen edo kableen bidez, ekoizti eta transmititzea ikus-entzuleentzat orokorrean, ondoz ondo edo berehala; informazio, kultura, arte, merkataritza, aisialdi edo publizitate xedeak dauzka, eta hezkuntza sistemarekin lankidetzan jarduteko, euskal kultura bultzatzeko eta hedatzeko eta, batez ere, euskara sustatzeko eta garatzeko bidea da.

b). Edizio grafikoa, musika edizioa eta disko eta bideoen ekoizpena.

Egun jarraikako programazioa ematen du bere kanalen bidez; hona hemen kanal horiek: EAEn ETB1, ETB2, ETB3 eta ETBHD (2013ko azarotik) multiplex eta kable bitartez; eta Europako kable operadoreetan ETBSat markaren peko nazioarteko kanal bat eta Amerikako operadoreetan Canal Vasco markaren peko beste bat. Azken bi horiek Interneten ere ikus daitezke streaming bitartez. Lantzean behin ETBK zuzenean ematen ditu kirol eta kultur saioak streaming bitartez. Era berean, eitb.com-en bidez eskuragarri dago EITB Nahieran-eko eskaintza guztia.

Programazio hau dela bide, Euskal Telebistak oinarrizko bi helburu estrategikori ematen dio erantzuna:

1. Herrialdearen hizkuntz normalizazioari laguntzen dio euskaraz ikus-entzule mota guztiei zuzentzen zaien eguneroko programazio oso baten zabalkundearen bidez.

2. Bere zerbitzua eskaintzen du gizarte integrazioarako hedabide gisa, horretarako telebistan euskal herritarren sektore guztien presentziari eta partaidetzari bide emanez.

Sozietatearen kapitala honela banatzen da:

1. ACTIVIDADES GENERALES DE LA ENTIDAD

Decreto del Gobierno Vasco sobre la constitución de la sociedad Anónima Pública EUSKAL TELEBISTA TELEVISION VASCA, S.A. n. 157/1982 de 19 de julio.

El objeto social de ETB, S.A, es:

a). La producción y transmisión de imágenes y sonidos simultáneamente a través de ondas o cables destinados, mediata o inmediatamente, al público en general con fines informativos, culturales, artísticos, comerciales, recreativos, publicitarios, así como medio de cooperación con el sistema educativo y de fomento y difusión de la cultura vasca, y en especial con el fomento y desarrollo del euskara.

b). La edición gráfica, edición musical y producción discográfica y videográfica.

En la actualidad emite una programación continua a través de sus canales: ETB1, ETB2, ETB3 y ETBHD (desde primeros de 2014) para la CAV a través del multiplex TDT y el cable; y un canal internacional bajo marca ETBSat en operadores de cable de Europa y bajo marca Canal Vasco en operadores de América, los cuales también están accesibles por streaming en Internet. Ocasionalmente ETB ofrece en directo por streaming acontecimientos deportivos y culturales. Asimismo, a través de eitb.com está disponible toda la oferta de EITB Nahieran (televisión a la carta).

Con esta programación Euskal Telebista responde a sus dos objetivos estratégicos básicos:

1. Contribuir a la normalización lingüística del País mediante la difusión de una programación diaria, completa y para todos los públicos en euskera.

2. Ofrecer su servicio como medio de integración social, propiciando para ello la presencia y participación de todos los sectores de la población vasca en su televisión.

El capital social se distribuye de la forma siguiente:

| PARTAIDETZA PARTICIPACIÓN | % |
|-------------------------------|-----|
| EITB, EUSKAL IRRATI TELEBISTA | 100 |
| GUZTIRA TOTAL | 100 |

2. 2013. URTEAN EGINDAKOAK

2. PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE 2013

| HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA | MAGNITUDEA MAGNITUD | OBJETIVO ACCION INDICADOR |
|--|------------------------|--|
| <p>1. ALBISTEGIAK ETA GAURKOTASUNEN SAIOAK</p> <p>ETBk 2013ko ekitaldirako ezarritako helburu orokorren arabera eutsi dio albistegiaren eskaintzari:</p> <ul style="list-style-type: none"> Albistegi eskaintza zabala egon da, euskaraz eta gaztelaniaz, ordu tarte guztietan. Goizeko tarteetan, Egun On Euskadi ETB2tik ETB1era aldatu zen; saioak albistegi zati bat dauka eta gaurkotasan eta eztabaidako elkarrizketa batek osatzen du. Halaber, uda aurretik ETB hoy sortu da ETB2n, informazio eta eztabaida saio berria; gaurkotasanari buruzko gaiak jorratzen ditu eta gizarte edo politika arloko elkarrizketa bat eskaini ohi du. Gauzak horrela, 2013an albistegiaren presentzia handitu da. Eguerdian eta gauean Gaur Egun eta Teleberri albistegiak jarraitzen dute; gaurkotasuneko espektro osoa biltzen duten albistegiak dira eta berriemaile eta berri biltzaileen sare zabala dute. 2013an zehar horien iraupen zabalari eutsi zaio eta albiste eta erreportaje gehiago sartu dira. Horrek albistegiaren lidergoa indartu du. Albistegiak amaitutakoan, eguraldiari buruzko informazioa ematen da egunero-egunero; saio horretan ere erreportajeak eta saioaren tratamendua sartu dira. Informazioaren gaurkotasunean sakontzeko eta hori aztertzeko ikuspegi batetik nabarmendu beharra dago ETB1eko gaurkotasan saioak ugaritu direla, hala nola Azpimarra klasikoa eta, irailtik aurrera Airean bazkalosteko magazina. Irizkiak trukatzeko eta aztertzeko saio gisa, bi orduko Debatea eskaintzen da prime time-n. Eta gaueko Gaur Egunaren access gisa, irailtik aurrera abian jarri da Euskal Herria zuzenean saioa; emanaldi honetan herrialde guztietako hurbileko informazioa eskaintzen da eta, gainera, eduki honen barruan sartzen dira Iparraldearen Orena eta Navarra directo aspaldiko saioak. Orobat, ETB1eko Azpimarra saioa elkarrizketa eta gaurkotasanari buruzko solasaldia nabarmendu behar dira. | | <p>1. INFORMATIVOS Y ESPACIOS DE ACTUALIDAD</p> <p>ETB ha mantenido la oferta informativa conforme a los objetivos generales establecidos para el ejercicio 2013:</p> <ul style="list-style-type: none"> Se ha desarrollado una extensa oferta informativa, en euskara y castellano, en las distintas franjas horarias. En la franja matinal, Egun On Euskadi se trasladó de ETB2 a ETB1, con una parte informativa que se amplía con una entrevista de actualidad y debate. Asimismo, desde antes de verano se ha creado ETB hoy, un nuevo espacio de información y debate con entrevista social y/o política sobre temas de actualidad en ETB2. De esta manera en 2013 se ha ampliado la presencia de los servicios informativos. Al mediodía y a la noche continúan Gaur Egun y Teleberri, abarcando todo el espectro de la actualidad informativa con una amplia red de reporteros y corresponsales. Durante 2013 se han mantenido su duración extendida incluyendo más noticias y reportajes lo que ha favorecido el liderazgo de los informativos. Al cierre de los informativos se ofrece diariamente información meteorológica, con incorporación de reportajes y tratamiento de programa. Desde una perspectiva de profundización y análisis de la actualidad informativa hay que destacar la ampliación de programas de actualidad de ETB1 tales como el clásico Azpimarra y, desde septiembre, el magazine de sobremesa Airean. Como programa de contraste y análisis se ofrece Debatea, de dos horas en prime time. Y como access al Gaur Egun de la noche, también desde septiembre se ha puesto en marcha el programa Euskal Herria zuzenean, con información de proximidad de todos los herrialdes, situando dentro de ese contenedor los antiguos espacios Iparraldearen Orena y Navarra Directo. Asimismo, hay que destacar la entrevista y tertulia de actualidad de Azpimarra en ETB1. |

| HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA | MAGNITUDEA MAGNITUD | OBJETIVO ACCION INDICADOR |
|---|--------------------------------|--|
| <p>• Ikuspegi beretik, baina ETB2ri dagokionez, azpimarratzekoa da arratsaldeko Ni más ni menos magazina (geroago Sin ir más lejos bihurtu dena) emaitzak hobetu dituela gizarte eta ekonomi arloko gaurkotasuneko gaiekin. Prime time-ko formatuarekin udan El dilema estreinatu da, De boca en boca saioaren txanda hartu duen saioa. Prime time-ko 60 minutos saioa erreportajeen generoan oinarritzen da.</p> <p>Era berean, Eusko Legebiltzarreko jardueraren jarraipen instituzionalari gagozkiorik, Palabra de ley ez ezik bilkurarik garrantzitsuenen zuzeneko emanaldiak ere izaten dira, bai eta Gobernu kontrolatzera zuzendutakoak ere.</p> <p>Euskadi Directo saioak eta Navarra en Directo-ren deskonexioak ETB2n zuten zikloa amaitu zuten eta hurbileko informazio hori ETB1n ematen da udaz geroztik.</p> <p>2. ESKAINTZA GENERALISTA</p> <p>• Euskarazko telebistaren eskaintza oso-oso dago: ETB1 orotariko katea eta ETB3 haur eta gazteentzako kate tematikoa.</p> <p>• Azarotik aurrera ETBHDk (halaxe aurreikusita dago memoria hau idazteko unean) ETBK-Sat ordezkatu du, gainerako kanalen programazio osagarria eskainiz. Azken kanal horiek HDko jatorria dute edo estandar horretara hedatutako sistemak. ETBHD kate elebiduna izango da.</p> <p>• Kirolaz denaz bezainbatean, ETBk 1. eta 2. mailako eta Errege Kopako futbolaren informazioa eta laburpenak eskaintzeko eskubideak ditu. Halaber, 2.A eta 2.Bko partidak ematen ditu, bai eta Euskadiko Selekzioari dagozkionak ere. Pilotan, esku pilotako liga profesionalaren gaineko eskubideak ditu eta astero-astero zesta-puntako emanaldi bat ematen du, bai eta hamabostean behin pala eta erremonteko beste bat ere. Ziklismoan, zuzenean eman da Euskal Herriko Itzulia eta Donostia-Donostia klasikoa. Gainera, nazioarteko txirindularitzari dagokionez, Italiako Giroa, Frantziako Tourra, Suitzako eta Milan-San Remo klasikoa eta Lonbardiako Giroa eskaintzen dira. Saskibaloian, Endesa liga ematen da eta euskal taldeen emanaldiak Euroligan eta Eurocup-ean lehiatzen direnean. Beste euskal kirol batzuei dagokienez, estropadak eta herri kirolak ere ematen dira. Kiroldegiko informazio estaldura honako modalitate hauetara zabaltzen da, besteak beste: atletismoa, errugbia, eskubaloia, areto futbola, gimnasia erritmikoa, fitness-a, boxeoa, triatlaiak eta bestelakoak. Halaber, albistegietan, Zu kirolari saioan eta zuzeneko emanaldietan arreta berezia jarri dugu emakumezkoen kirolari dagokionez.</p> | | <p>• Desde la misma perspectiva, pero en relación a ETB2 cabe destacar el magazine vespertino Ni más ni menos, posteriormente transformado en Sin ir más lejos, que ha mejorado el resultado con los temas de actualidad social y económica. Con formato de prime time se ha estrenado en verano El dilema, un programa que toma el relevo a De boca en boca. El espacio de prime time 60 minutos se fundamenta en el género del reportismo.</p> <p>Asimismo, en relación al seguimiento institucional de la actividad parlamentaria vasca se ofrecen Palabra de ley y retransmisiones en directo de los plenos más importantes y los dedicados al control de Gobierno.</p> <p>El programa Euskadi Directo y las desconexiones de Navarra en Directo finalizaron su ciclo de ETB2 y dicha información de proximidad se emite, después del verano, en ETB1.</p> <p>2. UNA OFERTA GENERALISTA</p> <p>• Existe oferta completa de televisión en euskera: ETB1, cadena generalista, y ETB3, cadena temática infantil/juvenil.</p> <p>• ETBHD sustituye a partir de noviembre (así está previsto en el momento de la redacción de esta Memoria) a ETBK-Sat, ofreciendo una programación complementaria al resto de los canales en contenidos mayormente originarios en HD o mediante sistemas expandidos a ese estándar. Será una cadena bilingüe.</p> <p>• En relación al deporte ETB dispone de derechos para ofrecer información y resúmenes de fútbol de 1ª y 2ª división y Copa del Rey. Retransmite los partidos de 2ª A y 2ªB y los correspondientes a la Selección Vasca. En pelota, tiene derechos sobre la liga profesionalde pelota a mano y ofrece una emisión semanal de cesta punta y otra quincenal de pala y remonte. En ciclismo, se han ofrecido en directo la Vuelta al País Vasco y la Clásica Donostia-Donostia. Además, a nivel internacional, el Giro de Italia, el Tour de Francia, el Tour de Suiza y prestigiosas clásicas como la Milán-San Remo y el Giro de Lombardía. En baloncesto, la liga Endesa y los equipos vascos en la Euroliga y la Eurocup. En relación a otros deportes vascos se retransmiten traineras y herri kirolak. La cobertura polideportiva se amplía con pruebas de atletismo, rugby, balonmano, fútbol sala, gimnasia rítmica, fitness, boxeo, triatlones y otros. También hemos prestado especial atención al deporte femenino en los informativos, en el programa Zu kirolari y en las retransmisiones en directo.</p> |

| HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA | MAGNITUDEA MAGNITUD | OBJETIVO ACCION INDICADOR |
|---|------------------------|---|
| <ul style="list-style-type: none"> ETB1eko programazioa oso-osorik berrantolatu da irailaz geroztik. Zuzendaritzaren konpromisoa da euskal audientzia sendotzea eta, horretarako, aurrekontu momentu korapilatsuan, egunero-egunero programazio berriko hamar ordu baino gehiago emateko konpromisoa hartu da. Ekitaldiaren lehendabiziko zatian azpimarratu beharra dago Bisitaria saioak izan duen eragina; saio horrek etxeetara eraman ditu oso modu atsegina eta etxeokian gure herriko figura handiak. Mihiluzek lehiaketa espezializatuko ziklo luzea itxi du, ikus-entzuleen harrera ona bereganatu eta gero. Finlandia ere erreferente handia izan da umorezko saioen artean. <p>Irailetik aurrera, programazio berriarekin, Txorienek antenan jarraitzen du, sukaldaritzako errezetak eskainiz. Gainera, zabalkundeko saio nagusiek ere jarraitzen dute; hona hemen: Bertsozaleasunari buruzko Hitzetik Hortzera, literaturari buruzko Sautrela, EITB Kultura-Transit, Teknopolis, eta abar.</p> <p>Jakina denez, Goenkalek ere jarraitzen du eta eduki berriak ere sortu dira: Kontrako Eztarria, umorezko eguneroko tartea, Tumaxak, euskal musikari buruzkoa, eta Hizkamizka, euskararekin zerikusia duen lehiaketa. Bereziki azpimarratu behar da 101 Gaztelu reality-a; saioa Euskal Herriko hogeitazazpi gaztelutan eta gotorlekutan grabatu da, sei lehiakideko bi talderekin.</p> <p>Hasi berri den denboraldiari begira honako hauek guztiak aurreikusita daude: Irrikitown, Alex Txikonen abendura saioa, Tribuaren berbak euskarari buruzko alderdirik ezezagunenei buruzkoa, bai eta Euskal Herriko bertsolari txapelketaren jarraipena ere.</p> <p>El conquistador del fin del mundo saioaren edizio berriak gizarte eragin handia izan du; horrek atzera ere egiaztatzen du abentura reality-ak ikus-entzuleen gustukoak direla. La noche de... zinemaren munduari buruzko klasikoak jarraitzen du, bai eta etxe berezi eta deigarri buruzko Ongi Etorri saioak ere. Robin Food-ek ere segitzen du eguerdiko access-en, bosgarren denboraldia betez.</p> <p>Denboraldi berria hastearekin batera, honako saio hauek jarri dira abian: Tu edificio favorito, euskal arkitekturari buruzko eredu onenen berri ematen duena, Basque Country Vertical, obra zibiletako eskaladari, elementu geografikoei eta eraikin bereziei buruzkoa, eta, Duelo de cocina beste herrialde batzuetako sukaldaritzak desafiatzeko saioa.</p> <p>ETB3 hurrei zuzendutako kanal berezi eta zehatza da, 12 urtera arteko ikus-entzuleengan espezializaturik dagoena; prime-timeko ordutegian gazteagoak diren ikus-entzuleak ditu jomugatzat. Egunero animazio eta fikzioko tirak ematen ditu, kate tematiko baten ereduaren arabera egituratuta.</p> | | <ul style="list-style-type: none"> Se ha reorganizado completamente la programación de ETB1 a partir de septiembre. Es un compromiso de la Dirección reforzar la audiencia en euskera y para ello, en un momento presupuestario muy complicado, se ha adquirido el compromiso de emitir diariamente más de diez horas de programación nueva. En la primera parte del ejercicio hay que destacar el impacto de Bisitaria un programa que ha acercado a los hogares, de una manera entrañable, grandes figuras del país. Mihiluze ha cerrado un largo ciclo de concurso especializado que ha merecido la aceptación de la audiencia y Finlandia ha sido un gran referente de humor. <p>Desde septiembre, con la nueva programación, siguen en antena Txoriene desarrollando recetarios de cocina y los principales espacios divulgativos: Hitzetik Hortzera sobre bertsolarismo, Sautrela sobre literatura, EITB Kultura-Transit, Teknopolis, etc.</p> <p>Sigue, naturalmente, Goenkale y se han creado contenidos nuevos: Kontrako Eztarria, una franja diaria de humor, Tumaxak dedicado a la música vasca e Hizkamizka concurso relacionado con el euskera. Es particularmente destacable el reality 101 Gaztelu grabado en veinte castillos y fortalezas del país con dos equipos de seis concursantes cada uno.</p> <p>Para la temporada recién iniciada están previstos el programa de humor Irrikitown, el programa de aventuras de Alex Txikon, Tribuaren berbak sobre los aspectos menos conocidos del euskera, así como el seguimiento del campeonato de bertsolaris de Euskal Herria.</p> <p>La nueva edición de El conquistador del fin del mundo ha tenido un gran impacto social demostrando que los realitys de aventura son del gusto de la audiencia. Continúa el clásico dedicado al mundo del cine La noche de... y el espacio Ongi Etorri referidos a todo tipo de casas con encanto. Robin Food continúa, cumpliendo su quinta temporada en access de mediodía.</p> <p>Con la nueva temporada se han puesto en marcha Tu edificio favorito, que expone lo mejor de la arquitectura vasca, Basque Country Vertical, centrado en la escalada de obras civiles, accidentes geográficos y edificios emblemáticos, y, Duelo de cocina, un espacio para retar a cocinas de otros países.</p> <p>ETB3 es el canal infantil por excelencia, especializado en el público de hasta 12 años y en horario de prime time en un público más juvenil. Ofrece tiras diarias de animación y ficción, estructurado según el modelo de un canal temático.</p> |

| HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA | MAGNITUDEA MAGNITUD | OBJETIVO ACCION INDICADOR |
|--|------------------------|---|
| <p>ETBHDK bereizmen handian ekoiztuko diren kirolak eta ekitaldiak eskainiko ditu. Era berean, zinea eta liburutegiko edukiak emango ditu, barne nahiz kanpo ekoizpenekoak. Zati garrantzitsu bat euskaraz emango da.</p> <p>3. 2013KO EMAITZAK</p> <p>3.1. Posizio lehiakorra telebista digitalaren eszenatokian</p> <ul style="list-style-type: none"> ETBk eskaintza elebidun zabala eskaini du, hitzartutako modalitate eta kateen parametroak betez, aurreko puntuetan adierazi den bezala. Programazio eredua berrikusi da, eguneroko tirako programazioan oinarritutako barne ekoizpenaren alde. Formula hori, behin egonkortuta, hobeto egokitzen da audientzia leial bihurtzeko prozesuaren eta kostu estuen binomiora, eta berau da aukerarik onena ETBren posizio lehiakorra sustatzeko, aurrekontu murrizketa oso garrantzitsuak dauden eszenatoki honetan; izan ere, modu horretan ekoizpen propiorako gaitasuna ahalik eta gehien aprobetxatzen da etxe barruko langileak erabiliz. ETBren programazio orokorra EiTb sortzeko 5/1982 Legeko 3. artikuluan jasotako printzipioetan oinarritu da, batez ere gainerako hedabideetatik bereizten duen alderdian: euskararen eta euskal kulturaren sustapenean eta gazteria eta haurtzararen babes eta sustapenean. ETB1ek audientzia sendotzeko konpromisoari oratu dio, egunero-egunero programazio tarte zabal berria abiaraziz, euskaraz egiten den telebista generalista baten eredu normalizatuaren pean; gainera, beste ikus-entzule mota batzuei zuzentzen zaizkien eduki espezializatuak ere ematen ditu. Kanal hau ETB3 eta ETBK-Sat gaikako kanalek osatzen dute, programazio espezializatu eta osagarri bateko ikuspegiarekin. ETB2k informazio eta gaurkotasun edukietan espezializaturik dagoen markako posizionamendu eta ezarpen sendoari eusten dio, betiere kate generalista izateari utzi gabe. ETBHD 2014 lehen hilabetetan hasi daiteke emititzen. Edukien planifikazio bat egin da, ETBK eskuratu eta erabilgarri dituen edukien eta eskubideei ahalik eta etekinik handiena ateratzera zuzendurik dagoena. | | <p>ETBHD ofrecerá deportes y eventos producidos en alta definición. También cine y contenidos de librería tanto de producción propia como ajena. Una parte muy significativa se ofrecerá en euskera.</p> <p>3. RESULTADOS 2013</p> <p>3.1. Posición competitiva en el escenario de la televisión digital</p> <ul style="list-style-type: none"> ETB ha ofrecido la oferta bilingüe cumpliendo los parámetros de canales y perfiles comprometidos, en la forma que se ha descrito en los puntos anteriores. Se ha revisado el modelo de programación, a favor de la producción propia basada en programación de tira diaria. Esta fórmula, una vez estabilizada, es la que mejor encaja en el binomio de costes ajustados y fidelización de audiencia, siendo la mejor posibilidad de afrontar una posición competitiva de ETB bajo el escenario presupuestario de recortes muy importantes ya que se aprovecha al máximo la capacidad de producción propia con personal interno. ETB ha fundamentado su programación general en los principios recogidos en el artículo 3 de la ley 5/1982 de creación de EiTb, particularmente en el aspecto diferenciador del resto de medios que le es más propio: la promoción del euskera y de la cultura vasca y la protección y promoción de la juventud y la infancia. ETB1 ha acometido el compromiso del reforzamiento de la audiencia con una amplia franja de programación nueva cada día, bajo un modelo normalizado de televisión generalista en euskera; también incluye contenidos especializados para otro tipo de públicos. Se complementa este canal con los canales temáticos ETB3 y ETBK-Sat con un enfoque de programación especializada y complementaria. ETB2 mantiene un sólido posicionamiento de marca especializada en contenidos de información y actualidad, sin dejar de ser cadena generalista. ETBHD, iniciará sus emisiones previsiblemente a principios de 2014. Se ha realizado una planificación de contenidos diseñado para lograr el máximo rendimiento de los contenidos y derechos adquiridos y disponibles por ETB. |

| HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA | MAGNITUDEA MAGNITUD | OBJETIVO ACCION INDICADOR |
|--|--------------------------------------|--|
| <ul style="list-style-type: none"> ETBSAT/CANAL VASCO nazioarteko kateen eta ETB Nahieran-en programazioa kudeatzerakoan, nazioarteko audientziak Euskadiko edukiei buruz jakin nahi duena bermatuko da, Euskadik kanpoan izango duen irudiaren proiektio gisa. EITBk Interneteko hedapenaren aldeko apustu irmoa egin du (IP bidezko telebista), ohiko kateen banaketari kalterik eragin gabe. Halaber, EITB Nahieran gero eta gehiago erabiltzen da etxeetan; izan ere, gure ingurunean kontsumo ohitura aldatuz doaz eta erabiltzaileek edukia eskura ditzakete nahi duten momentuan. EITBk arlo honetan ematen duen zerbitzuari buruz sumatzen den iritzia aldekoa da, bai edukien erabilgarritasunagatik bai horien eskuragarritasun errazagatik. <ol style="list-style-type: none"> ETBko Sharearen posizio erlatikoa hobetzea, lehiako hiru komunikazio talde handietako biri dagokienez, 2012ko emaitzen aldean. ETB1 eta ETB3ko share metatua areagotzea, 2012ko emaitzen aldean. <p>Kopuru absolutuetan audientziari eustea igoeratzat har daiteke kopuru erlatiboetan; izan ere, generalistak ez diren kateetara lekualdatzen den audientzia nabarmen handitu da.</p> <ol style="list-style-type: none"> Erreferentziazko posizioari eustea telebista autonomikoen aldean. Euskarazko edukien orduak ETB1, ETB3 eta ETBHDn. Haurrentzako eta gazteentzako euskarazko programazioan espezializatutako edukien orduak. | <p>2ª</p> <p>18.384</p> <p>8.760</p> | <ul style="list-style-type: none"> La programación de los canales internacionales ETBSAT/CANAL VASCO y ETB Nahieran se gestionan con el fin de satisfacer tanto la demanda de la audiencia internacional interesada en contenidos generados en Euskadi como la proyección de la imagen de Euskadi en el exterior. EITB apuesta de forma decidida por la difusión por Internet (televisión por IP), sin merma de la distribución por canales convencionales. Existe asimismo un creciente uso de EITB Nahieran de carácter doméstico, ya que están cambiando los hábitos de consumo de nuestro propio entorno para acceder a los contenidos en el momento que así lo desean los usuarios. El percibido sobre el servicio de EITB es satisfactorio, tanto por la disponibilidad de contenidos como por su accesibilidad. <ol style="list-style-type: none"> Mejorar la posición relativa del Share de ETB en relación a dos de los tres grandes grupos de comunicación de la competencia, sobre resultados de 2012. Incrementar el share acumulado de ETB1 y ETB3, sobre resultados de 2012. <p>El mantenimiento de audiencia en términos absolutos se puede considerar como un incremento en términos relativos, debido al aumento del conjunto de audiencia que migra hacia canales no generalistas.</p> <ol style="list-style-type: none"> Mantener una posición de referencia en relación a las televisiones autonómicas. Horas de contenidos en euskera en ETB1, ETB3 y ETBHD. Horas de contenidos especializados de programación infantil y juvenil en euskera. |
| <p>3.2. Informazioaren eta gaurkotasunaren lidergoa</p> <ul style="list-style-type: none"> ETBk informazioaren eta gaurkotasunaren lidergoa izateko konpromisoari eusten dio, EITB sortzeko 5/1982 Legeko 3. artikuluan jasotako printzipioen arabera. Albistegi objektiboak, inpartzialak eta irizitiek bereizitakoak eskaintzeko etengabeko ahaleginak egiten ditu; halaber, erakundeak eta bizikidetzako balio hiritarrak defendatuko ditu, herritarren partaidetza ahalbidetuko du, gizartearen aniztasuna bermatuko du eta ohore, intimitate eta irudi propioaren eskubidea errespetatuko du. | | <p>3.2. Liderazgo en la información y actualidad</p> <ul style="list-style-type: none"> ETB fundamenta su compromiso de liderazgo en la información y actualidad en los principios recogidos en el artículo 3 de la ley 5/1982 de creación de EITB. Realiza un esfuerzo constante para ofrecer servicios informativos objetivos, imparciales y separados de la opinión; se preserva la defensa de las instituciones y de los valores cívicos de la convivencia, dando acceso a la participación de los ciudadanos, a la pluralidad social y a respetando el derecho al honor, intimidad y a la propia imagen. |

| HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA | MAGNITUDEA MAGNITUD | OBJETIVO ACCION INDICADOR |
|--|--|--|
| <p>• Egunerokoak diren eta ez diren albistegien eskaintza zabala eta gaurkotasuneko bestelako edukia dituzten beste saio batzuk eskaintzen ditu. Era berean, eztabaida eta azterketa saioak ematen ditu, ikus-entzuleei albisteen testuingurua eta esanahia jakinarazteko asmoz.</p> <p>1. ETB1 eta ETB2ko albistegien share bateratua hobetzea, EAEko beste komunikazio talde batzuetako albistegien ginetik.</p> <p>ETB2k lider gisa amaituko du eta Gaur egun eta Teleberriren 2013ko audientziak hobetuko dira aurreko urtekoen aldean.</p> <p>2. Programazio orduak ETB1 eta ETB2ko informazio eta gaurkotasuneko edukietarako.</p> <p>• ETBren albistegiek duten kokapen erlatiboa hobetu da lehiakideenen aldean. Memoria hau prestatzeko momentuan, ETBren eguneroko albistegien batuketaren urteko metatuak sharearen %3,3ko aldea du bigarren komunikazio taldearen aldean eta sharearen %6,8koa hirugarren komunikazio taldearen aldean.</p> <p>3.3. Koprodukzioa ikus-entzunezkoen euskal sektorearekin</p> <p>ETBk %6ko inbertsioaren konpromisoa betetzen du, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorrean eta Eusko Jaurlaritzako 215/2007 Dekretuan ezarritakoaren arabera.</p> <p>1. Koprodukzioetako inbertsioa eta emisio eskubideak erostekoa (milaka eurotan).</p> <p>3.4. Inbertsioak</p> <p>2011-2014ko eperako aurreikusitako inbertsioen markoan, Miramongo 22. estudioko nahasketa mahaia berritu da, HDrako ahalmena duen beste baten ordeztuz. Halaber, Miramongo Ekoizpen Zentroko Intercom berritzeko ere inbertitu da.</p> <p>Orobat, azken ekitaldietako politikari jarraituz, Miramon egoitza apurka-apurka egokitzen ari da suteen aurkako segurtasunaren gaineko indarreko araudira eta tentsio baxuko instalazio elektrikoaren arazuko erregulaziora.</p> <p>1. Inbertsio errealean jarduerak guztira (milaka eurotan).</p> | <p>ETB2 LIDERRA LÍDER</p> <p>5.000</p> <p>5.325</p> <p>850</p> | <p>• Ofrece una amplia oferta de informativos diarios y no diarios y amplios espacios con otros contenidos de actualidad. También espacios de debate y análisis dando a conocer a la audiencia el contexto y significación de las noticias.</p> <p>1. Mejorar el share conjunto de los informativos de ETB1 y ETB2 sobre informativos de otros grupos de comunicación en el CAV.</p> <p>ETB2 cerrará como líder y habrán mejorado las audiencias 2013 de Gaur Eguna y Teleberri sobre el año anterior.</p> <p>2. Horas de programación dedicada a contenidos de información y actualidad en ETB1 y ETB2.</p> <p>• Se ha mejorado la posición relativa de los informativos de ETB sobre sus competidores. A fecha de elaboración de la presente Memoria el acumulado de año del sumatorio de informativos diarios de ETB tienen una distancia de 3,3% de share sobre el segundo Grupo de Comunicación y de 6,8% de share sobre el tercer Grupo de Comunicación.</p> <p>3.3. Coproducción con el sector audiovisual vasco</p> <p>ETB cumple el compromiso de inversión del 6% conforme a lo establecido en la Ley 7/2010, de 31 de marzo, General de la Comunicación Audiovisual y en el Decreto 215/2007 del Gobierno Vasco.</p> <p>1. Cifra de inversión en coproducciones y compra de derechos de emisión (miles de euros).</p> <p>3.4. Inversiones</p> <p>En el marco de las inversiones previstas para el período 2011-2014, se ha acometido la renovación de la mesa de mezclas del estudio 22 de Miramon; la misma se ha sustituido por una nueva, con capacidad para HD. Asimismo se ha invertido en la renovación del Intercom del Centro de Producción de Miramon.</p> <p>Continuando con la política de los últimos ejercicios se está acometiendo, de manera progresiva, la adecuación de la sede de Miramon a la normativa vigente en materia de seguridad contra incendios y la regulación correspondiente a instalaciones eléctricas de baja tensión.</p> <p>1. Total actuaciones en inversiones reales (miles de euros).</p> |

| HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA | MAGNITUDEA MAGNITUD | OBJETIVO ACCION INDICADOR |
|--|------------------------|---|
| <p>3.5. Enpresaren kudeaketa</p> <ul style="list-style-type: none"> ETBk ekitaldi barruan beste aurrekontu murrizketa garrantzitsu bat kudeatu behar izan du, laugarren urtez jarraian gertatu dena. Gauzak horrela, 2013rako ezarritako aurrekontuak %26,3ko murrizketa zekarren 2011ko gastuekin alderatuta eta %13,9koa 2012koekin erkatuta. <p>Soldata eta ordainsariei eutsi zaie eta plantilla gutxitu da, EITB taldearen aurrekontu plantillaren helburua bete arte.</p> <p>Zeharko gastuetan eta funtzionamendu gastuetan zorrotz-zorrotz jardun da. Memoria hau prestatzeko momentuan erabilitako aurreikuspenekin bat etorritz, funtzionamendu gastuak 2012ko 30,2 milioi euroetatik 2012ko 23,7 milioi euroetara murriztuko dira. Lehenago ere horren inguruan jardun zen, baina %21 inguruko murrizketa gehigarri bat aplikatu behar izan da, kontratuak berriro ere negoziatuz, kontsumo unitateak gutxituz eta lizitazioetako prezioak hobetuz.</p> <p>Telebistako edukiei dagokienez, zuzeneko kostuen murrizketan ere jardun behar izan da. Horri oso murrizketa gogorra eragin dio, beste gastu partida batzuei eragin diena baino handiagoa. Horrela bada, hiru urteko epean 66 milioi eurotik (2010) 36,7 milioi eurora (2013) igaro da; esan nahi baita, jaitsiera %44koa izan da. Aurrekontuen ikuspegi historiko batetik, 2013ko kopuru horiek (KPIren eragina alde batera utziz) laurogeita hamarreko hamarkadari dagozko.</p> <p>Murrizketa horrek nabarmenki eragin dio eduki sortaren eskaintzari. Hartara, halaber gutxitu behar izan da enkarguz agindutako, bazkidetzan egindako edo erositako ekoizpen tarte askotako orduko kostua. Horren ondorioz, formatu erakargarri eta garestiagoak ekoizteari uko egin zaie edo neurri handian gutxitu, fikzio eta umore arloan esaterako.</p> <p>Egokitzapenak egitean produktuaren interesa eta kalitatea ahalik eta gutxien kaltetzea da zailtasunik handiena. Baina egoera are konplexuagoa bihurtzen da, negozioa lehia bizidun testuinguru batean kudeatu behar baita.</p> <p>Zailtasun horiek gorabehera, aurreikusita dago urtetik urtera metatutako audientziari eustea; izan ere, 2012ko sharearen %13,3ren aldean, 2013ko ekitaldia ixtean, %13,0 edo %13,1ekoa izatea espero da. ETB kudeatzeko zeregin korapilatsua, 2013ko ekitaldiko zailtasun izugarria, honakoa izan da: programen gastu ahalmenaren jaitsiera handiak ahalik eta eraginik txikiena izatea audientzian.</p> | | <p>3.5. Gestión empresarial</p> <ul style="list-style-type: none"> ETB ha tenido que gestionar en el ejercicio una nueva e importante reducción presupuestaria, acumulativa por cuarto año consecutivo. De hecho, el presupuesto establecido para el 2013, suponía una reducción del 26,3% respecto de los gastos del 2011, y un 13,9% respecto de los gastos del 2012. <p>Se ha realizado contención en sueldos y salarios, reduciendo la plantilla hasta cumplir el objetivo de la plantilla presupuestaria del Grupo EITB.</p> <p>Se ha actuado intensamente en los gastos indirectos y gastos de funcionamiento. Los gastos de funcionamiento, según estimaciones al momento de la elaboración de la presente Memoria, se habrán reducido de 30,2 millones de euros en el 2012 a 23,7 millones de euros en 2013. Se había actuado anteriormente sobre ellos, pero ha sido necesario una reducción adicional de entorno al 21% mediante renegociación de contratos, reducción de unidades de consumo y mejoras de precio en las licitaciones.</p> <p>Se ha tenido que actuar también en la reducción de costes directos en contenidos de televisión. Les ha afectado una reducción extraordinariamente dura, mayor que a otras partidas de gasto, pasando en el plazo de tres años de 66 millones de euros (2010) a 36,7 millones de euros (2013), un 44% inferior. Desde una perspectiva histórica de presupuestos, estas cantidades de 2013 son propias –eludiendo el efecto de IPC- de los años noventa.</p> <p>Este recorte ha incidido de forma drástica en la oferta de la parrilla de contenidos. Se ha reducido necesariamente el coste hora de muchas franjas de producciones de encargo, asociadas y adquiridas. En consecuencia, se ha tenido que renunciar, o en su caso reducir, la producción de formatos más ambiciosos como son la ficción o el humor.</p> <p>La dificultad es realizar ajustes con la menor merma en la calidad e interés del producto, pero tal situación se vuelve tremendamente compleja porque el negocio se ha de gestionar en el marco de una competencia feroz.</p> <p>Pese a todas estas dificultades, se estima que la audiencia acumulada en términos interanuales se mantendrá, ya que frente al 13,3% de share de 2012 está previsto un cierre de ejercicio de 2013 en la franja 13,0%-13,1%. La gran tarea de gestión de ETB, la enorme dificultad del ejercicio 2013, es que la drástica caída de la capacidad de gasto en programas tenga el menor impacto posible en el comportamiento de las audiencias.</p> |

| HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA | MAGNITUDEA MAGNITUD | OBJETIVO ACCION INDICADOR |
|--|------------------------|---|
| <p>3.6. Gardentasuna</p> <ul style="list-style-type: none"> ETBk Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legearen arabera kontratazioa bateratzeko sistema sendotu du. Lege horren arabera, ETBk esleitzeko ahalmena dauka. Lote askoren eskaintza egin da kontratatzailearen profilean (eitb.com) argitaratutako kontratazio argibideen arabera. <p>Saioen kontratazioari dagokionez, esan beharra dago ikus-entzunezkoak eskuratzeko ezarritako legezko printzipioei jarraituz kontratatu dela.</p> <p>Kontratazio guzti-guztiak kontratazio kontrolen pean daude; Urteko Kontuen Ikuskatzaileak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak modu independentean egiten dituzte kontrol horiek.</p> <p>4. 2014. URTERAKO HELBURU NAGUSIAK ETA HAIEN ZENBATEKOA</p> <p>4.1. Posizio lehiakorra telebista digitalaren eszenatokian</p> <ul style="list-style-type: none"> EITBk urtetik urterako finantza proiektzioko programa-kontraturik ez duen bitartean, 2014ko eszenatoki ekonomikoak berekin dakar gastuaren kontrol zorrotza, betiere ahalik eta aurrekontu zatirik handiena edukien prestaketara zuzentzeko asmoz. <p>EITBko zuzendaritzak ezin bazter ditzake zerbitzu publikoaren konpromisoak eta arretaz begiratu behar dio komunikazio talde lehiakideen jardunari; izan ere, susmatzen da talde lehiakide nagusiek 2013an baino zuzkidura handiagoak erabili ahal izango dituztela saioetan.</p> <ul style="list-style-type: none"> ETBren programazio orokorra EITB sortzeko 5/1982 Legeko 3. artikuluan jasotako printzipioetan oinarrituko da, batez ere gainerako hedabideetatik bereizten duen alderdian: euskararen eta euskal kulturaren sustapenean eta gazteria eta haurtzaroren babes eta sustapenean. <p>Halaber, legegintzaldi honetarako onetsitako Programazio Ildo Nagusiak garatzeko konpromiso argia dago.</p> | | <p>3.6. Transparencia</p> <ul style="list-style-type: none"> ETB ha desarrollado durante el ejercicio el sistema de contratación armonizada conforme a la ley 30/2007 de Contratos del Sector Público. De acuerdo a la citada ley, ETB tiene consideración de poder adjudicador. Se han licitado numerosos lotes conforme a las Instrucciones de Contratación que están publicadas en el perfil de contratante, en eitb.com. <p>En materia de contratación de programas se ha contratado conforme a los principios legales establecidos para la adquisición de la obra audiovisual.</p> <p>Todas las contrataciones están sometidas a sendos controles de la contratación, regularmente realizados de forma separada e independiente por la firma auditora de las Cuentas Anuales y el Tribunal Vasco de Cuentas.</p> <p>4. OBJETIVOS GENERALES PARA EL AÑO 2014 Y SU CUANTIFICACIÓN</p> <p>4.1. Posición competitiva en el escenario de la televisión digital</p> <ul style="list-style-type: none"> El escenario económico de 2014, en tanto EITB no disponga de un Contrato Programa con proyección financiera plurianual, obliga a un intenso control de gasto a fin de dirigir el máximo presupuesto posible a la elaboración de contenidos. <p>La dirección de EITB no puede eludir los compromisos de Servicio Público y debe estar atento al comportamiento de los grupos de Comunicación competidores ya que existen indicios de que los principales grupos competidores pueden dedicar a programas dotaciones notablemente superiores a 2013.</p> <ul style="list-style-type: none"> ETB fundamentará su programación general en los principios recogidos en el artículo 3 de la ley 5/1982 de creación de EITB, particularmente en el aspecto diferenciador del resto de medios que le es más propio: la promoción del euskera y de la cultura vasca y la protección y promoción de la juventud y la infancia. <p>Asimismo existe un claro compromiso de desarrollar las Líneas Generales de Programación aprobadas para el período de esta legislatura.</p> |

| HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA | MAGNITUDEA MAGNITUD | OBJETIVO ACCION INDICADOR |
|--|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • ETB1ek, kate generalista gisara, eskaintza sendotzeko asmoari eusten dio, hamar ordutik gorako programazio berriarekin. Denbora tarte luzea behar izango da kontsumo ohiturak aldatu arte, hau da, ahalegin berriak eta audientzia sendotzeko zeregina uzartu arte. • ETB3 espezializaturik dago euskaraz haurrei begira (12 urtera arte) egiten den nazioarteko fikzioaren telebista tematikoan; gainera, gazteei zuzendutako edukiak ere eskaintzen ditu tarte batzuetan. Horren ondorioz, eguneroko ekoizpen tarte bat behar du, berezko nortasuna lor dezan eta horrek erreferentzialtasunari eta ikus-entzuleen leialtzeari lagun diezaien. Emaiza hori ezin da bermatu berezko aurrekontu baten laguntzarik eta babesle garrantzitsurik gabe. Baina ahalegina bide horretan oinarrituko da. • ETB2 informazioan eta gaurkotasunean zentratuko da, baina zabalkunde eta aisialdiko saioak ekoizteari, erosteari eta emateari uko egin barik. Aurreikusten den baliabide faltaren testuinguruan, asmoa da markaren erreferentzialtasunari eta posizionamenduari eustea. • ETBHD multiplex-eko laugarren katea izango da eta euskal eskaintza bereizmen altuan emango du. Ekitaldi garrantzitsuak ETB1 eta ETB2ren bidez emango dira <i>simulcast</i>-en. Edukien kopuru handia euskaraz izango da. Kirolari buruzko programazioa eskainiko du, ETB1 osatuz, eta besteek produzitutako saioak eta liburutegiko programak ere izango ditu. • Nazioarteko kateen programazioa eta ETB Nahieran kudeatuko dira nazioarteko nahiz bertoko ikus-entzuleen eskariari erantzuteko asmoz. • ETBk, ahal duen neurrian, ahaleginak egingo ditu euskal diasporaren interesen aldeko eskariari ere erantzun egokia emateko. <ol style="list-style-type: none"> 1. ETBren konparaziozko kokapenari eustea 2013an, gainerako komunikazio taldeen aldean. 2. ETB1 eta ETB3ko euskaldunen artean share metatua areagotzea, 2013ko emaitzen aldean. 3. 2013ko erreferentziazko posizioari eustea telebista autonomikoen aldean. 4. Euskarazko edukiaren orduak ETB1, ETB3 eta ETBHDn (%60). | <p style="text-align: center;">2</p> <p style="text-align: center;">21.900</p> | <ul style="list-style-type: none"> • ETB1 como cadena generalista mantiene su propósito de reforzamiento de la oferta con más de diez horas de programación nueva. Se precisará de un largo período para la modificación de los hábitos de consumo, hasta lograr la correspondencia del nuevo esfuerzo y la consolidación de la audiencia. • ETB3 especializada en la televisión temática de ficción internacional en euskera para al target infantil (hasta 12 años) y con contenidos para el target juvenil en determinadas franjas precisa de una franja de producción diaria que le dote personalidad propia y contribuya a su referencialidad y fidelización. No se garantiza tal resultado sin contribución de presupuesto propio y un importante agente sponsor. Pero el intento se basará en esa vía. • ETB2 se centrará en la información y actualidad sin renunciar a producir, adquirir y emitir programas de divulgación y entretenimiento. Se aspira, en el contexto de falta de recursos que se prevé, mantener su posición de referencialidad y posicionamiento de marca. • ETBHD, el cuarto canal del multiplex, será la oferta vasca en alta definición. Los grandes eventos se emitirán en <i>simulcast</i> con ETB1 o ETB2. Tendrá una amplia oferta de contenidos en euskera. Dispondrá de programación deportiva complementaria a ETB1 y programas de producción ajena y librería. • La programación de los canales internacionales y ETB Nahieran se gestionarán con el fin de satisfacer tanto la demanda de la audiencia internacional como la doméstica. • Desde ETB se tratará de atender todo lo posible la creciente demanda a favor de los intereses de la diáspora vasca. <ol style="list-style-type: none"> 1. Mantenimiento de la posición comparativa de ETB en 2013 frente al resto de grupos de comunicación. 2. Incrementar el share acumulado entre euskaldunes de ETB1 y ETB3, sobre resultados de 2013. 3. Mantener la posición de referencia de 2013 en relación a las televisiones autonómicas. 4. Horas de contenidos en euskera en ETB1, ETB3 y ETBHD (60%). |

| HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA | MAGNITUDEA MAGNITUD | OBJETIVO ACCION INDICADOR |
|--|---|--|
